Zangoza / 2026

# KULTUR AGENDA

## abuztua



Ayuntamiento de Sangüesa/Zangoza

CASA DE CULTURA SANGÜESA PALACIO VALLESANTORO KULTUR ETXEA ZANGOZA

Nafarroako Gobernua

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

## Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea

**Kultur Zerbitzuaren arreta ordutegia:** asteartetik ostiralera, 09:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

**Erakusketa aretoko ordutegia:** asteartetik ostiralera 11:30etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

**Helbidea:** Alfontso Borrokalaria Karrika, 20. **Telefonoa:** 948 870 251.

Gure kultura-agendari jarrai diezaiokezu Facebooken, Instagramen, Kultur Etxearen hedatze-kanalean Whatsapp bidez eta www.sanguesacultura.es helbidean.

www.facebook.com/culturasanguesa www.instagram/com/culturasanguesa

Datuak babesteko legea hemen kontsulta dezakezu: www.sanguesa.es

## Vallesantoro Jauregiko lorategia / Kultur Etxea

Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Lorategian eginen diren kontzertuetarako sarrera doan izanen da. Kontzertura sartzeko lorategiko atetik. Atea kontzertua hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da.

Lorategian eta Luis Gil Ikastetxeko jolastokian jarduera programatuta dagoen egunetan, Kultur Etxea itxita egonen da arratsaldean.

### Lorategiko jardueretara joateko jarraibideak:

Bertaratutakoendako eta artistendako gune atsegina, atsegina, segurua eta errespetuzkoa bermatzeko, honako arau hauek betetzea eskatzen dugu:

- Ezin da erre edo bapeatu.
- Ezin da animaliekin sartu, txakur gidariak eta laguntza-txakurrak izan ezik.
- Ezin da edari alkoholdunik kontsumitu.
- Ezin da jan jarduerak egiten diren bitartean.
- Mugikorraren erabilera arduratsua egitea eskatzen da, isilik mantenduz eta haren erabilera saihestuz jardueraren garapenean oztopa dezakeenean edo gainerako bertaratuei edo artistei enbarazu egin diezaiekeenean.

Mila esker anitz zuen laguntzagatik.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

L.G.: NA 1735-2012

aurkibide kornologikoa

Zangoza / 2026

# KULTUR AGENDA

## abuztua













| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | La | Erakusketa «La vida cotidiana en la Sangüesa medieval» (abuztuaren 16a bitarte) | 4 Orr. |
| **2** | Ig | Antzezturiko bisita | 7 Orr. |
| 3 | Al | | |
| 4 | As | | |
| 5 | Az | | |
| 6 | Og | | |
| 7 | Os | Lorategirako musika. Her Itage, «Mujeres que suenan» | 5 Orr. |
| 8 | La | | |
| **9** | Ig | Antzezturiko bisita | 7. Orr. |
| 10 | Al | | |
| 11 | As | | |
| 12 | Az | | |
| 13 | Og | | |
| 14 | Os | Lorategirako musika. Ritmonautas, «Per-versiones» | 5. Orr. |
| **15** | La | | |
| **16** | Do | Antzezturiko bisita | 7. Orr. |
| 17 | Al | | |
| 18 | As | Magia, clown. Txema Muñoz, «Gota» | 6. Orr. |
| 19 | Az | | |
| 20 | Og | | |
| 21 | Os | Kultur 2026. Musika. Jaian Jai. «Bihotzetik zintzurrara» | 7. Orr. |
| 22 | La | Jaietako kartelen erakusketa (irailaren 17a bitarte) | 4. Orr. |
| | La | «Peña Batasuna» elkartearen 50. urteurrenaren ospakizuna | 8. Orr. |
| **23** | Ig | Antzezturiko bisita | 7. Orr. |
| 24 | Al | | |
| 25 | As | | |
| 26 | Az | | |
| 27 | Og | Zirku antzerkia. Planeta Trampolí, «Back2Classics» | 6. Orr. |
| 28 | Os | Erakusketa «Celebrando los 40 años del Club Taurino sangüesino» (irailaren 20a bitarte) | 4. Orr. |
| 29 | La | Merkataritzaren festa Zangozan | 8. Orr. |
| **30** | Ig | | |
| 31 | Al | | |

Azaleko irudia: Planeta Trampolí, «Back2Classics».

# Erakusketak



### «La vida cotidiana en la Sangüesa medieval»

## ABUZTUAREN 16RA BITARTE

«Eguneroko bizitza Erdi Aroko Zangozan» izenburupean, erakusketak hiriaren historiaren ikuspegi hurbila eskaintzen du, Alfontso Borrokalariak XII. mendean sortu eta ondoren garatu zenetik, elikaduraren, txanponaren edo janzkeraren bidez bizitzeko moduak, baita Zangozako faktore bereizgarrienak ere, Donejakue bidea eta Almadiazainen ibilbidea bezalako ibilbide historikoetan kokapena kasu.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultur Etxeko Erakusketa aretoa (behealdean).

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.







### Zangozako jaietako kartelak
### Helduen eta haurren mailak

## ABUZTUAREN 22TIK IRAILAREN 17RA

2026ko Zaindariaren Jaiak iragartzeko Kartel Lehiaketaren lanak biltzen ditu erakusketak. Eider Fayanás Monreal irabazlea izan zen «Denak kalera!» kartelarekin helduen mailan. Haurren mailan, 12 urteko Irina Fernandes Monteiro zangozarrak lortu zuen saria «En septiembre, todos los caminos llevan a Sangüesa» kartelarekin.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko bigarren solairuko Erakusketa aretoa.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.



### «Celebrando los 40 años del Club Taurino sangüesino»
### Argazki erakusketa. Henrike II.a Albretekoa Kultur Taldea

## ABUZTUAREN 28TIK IRAILAREN 20RA

Erakusketan Javier Beúnza, Javier Jiménez, Luis Mª Vital eta Desirek egin dituzten argazkiak daude, baita egilea ezagutzen ez diren beste argazki zaharrago batzuk ere.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultur Etxeko Erakusketa aretoa (behealdean).

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

**Ordutegia:** Asteartetik ostiralera, 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

# Lorategirako musika





**MUSIKA**

**«Mujeres que suenan”**

HER ITAGE

## OSTIRALEAN, ABUZTAK 7

**Interpretatzaileak:** Marta Aparicio eta Elena Martínez.

«Emakume soinudunak» ibilbide narratibo-musikala da abestietan barrena eta hainbat emakume-belaunaldiren ikusezin bihurturiko istorioak. Ikuskizun berritzailea da, emakumeek musikan egiten dituzten ekarpen sozial eta kulturalei buruz taldean hausnartzera gonbidatzen duena.

**Iraupena:** 60 minutu.
**Ikusleak:** gazteak eta helduak.
**Ordua:** 20:30.
**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultur Etxeko Lorategia.
**Sarrera doan**.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.



**MUSIKA**

**«Per-versiones»**

RITMONAUTAS

## OSTIRALEAN, ABUZTUAK 14

**Taldekideak:** Juantón, Gitarra espainarra eta ahots nagusia; Logolo, Tronpeta, perkusioa eta koruak; eta Fernando Redondo, Kontrabaxua eta koruak.

Berezko abestiak eta bertsioak, den-denak, son, cumbia, reggae eta pop erritmoan, eta umore handia.

**Iraupena:** 75 minutu.
**Ikusleak:** gazteak eta helduak.
**Ordua:** 20:30.
**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultur Etxeko Lorategia.
**Sarrera doan**.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Arte eszenikoak





**MAGIA, CLOWN**

**«Gota»**

TXEMA MUÑOZ

## ASTEARTEAN, ABUZTUAK 18

**MAX eta FETEN sariak, 2026ko kaleko ikuskizun onenari; finalista, Kritikaren Sariak, 2025eko familia-ikuskizun onenari**

**Antzerkilaria:** Txema Muñoz.

Irudimenezko tanta batzuk etengabeko harridura-erritmo bihurtzen dira, irudimenezko eta fantasiazko koreografia bat azaleratuz, sormen hori absurduarekin jolastera eramaten duena. Katilu bat agertzen da, txanpon jario urduria sakeletan eta mahuketatik borborka etengabe ateratzen diren koilarak. «Tanta» proposamen bat da, non nouvelle magia eta clown garaikidea uztarturik doazen. Objektuen manipulazioa, antzerki fisikoa eta komikotasuna hizkuntza poetiko, sentikor eta pikaro batekin hitz egiten duen isiltasun batean.

**Iraupena:** 45 minutu. **Ikusleak:** Ikusle guztiendako (6 urtetik aurrera).

**Ordua:** 19:30. **Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Lorategia.

**Sarrera doan**.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.





**ZIRKU ANTZERKIA**

**«Back2Classics»**

PLANETA TRAMPOLÍ

## OSTEGUNEAN, ABUZTUAK 27

**Interpretatzaile eta akrobata:** Angel De Miguel García.

«Back2Classics», ohe elastikoko ikuskizun fresko, hurbil eta intimoa familia osoarendako, non zirkurik klasikoena hiriko kulturekin uztartzen den, dantzaren, musikaren eta turntablism artearen bidez (scratch binilozko diskoekin). Proposamen honetan, ohe elastikoak bizitza propioa hartzen du, protagonistaren eromenaren eta akrobazien artean. Maitemintzen gaituen iraganerako bidaia, umorez, poesiaz, inozentziaz, erritmoz eta karanbolaz betea, ohe elastikoari buruz dugun kontzeptua aldatuko duena.

**Iraupena:** 40 minutos. **Ikusleak:** Ikusle guztiendako.

**Ordua:** 19:30. **Lekua:** Luis Gil I.P.ko jolastokia.

**Sarrera doan**.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Kultur 2026




**MUSIKA**

**«Bihotzetik zintzurrara»**

JAIAN JAI

## OSTIRALEAN, ABUZTUAK 21

**Taldekideak:** Marta Aldaba Iturbide, Gorka García Tamayo, Karlos Bidondo Jauregi, Jorge París Aristu eta Mikel Alkasena Gurpegui.

Ibilbide bat gure herriko musikan zehar... Herri kantutegiko doinu tradizionaletatik gaur egungo musikara, folketik, kantautoreen kantuetatik, euskal pop eta rocketik, eta berbena taldeen bertsioetatik... Jai egokitzapen pertsonal eta freskoekin! Hori guztia, publikoa bandako seigarren kide bihurtuz!!

**Iraupena:** 90 minutu.

**Ordua:** 20:00. **Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultur Etxeko Lorategia.

**Sarrera doan**.

**Antolatzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Antzezturiko bisitak




**«Buen camino...»**

PRODUCCIONES ADRIANA OLMEDO

## IGANDEAN, ABUZTUAK 2, 9, 16 ETA 23

**Antzerkilariak:** Adriana Olmedo, Nerea Bonito eta Xabi Artieda.

Ekitaldi paranormaletan aditua den youtuber ospetsua prest dugu Zangozako Karmengo klaustroan bere atalik onena grabatzeko. Lainoetako arimak, Bideko espirituak, behin baino gehiagotan agertu omen dira han... Animatzen zara streaming bidezko atal honetan parte hartzera? Baina... ezer ez da aterako berak espero bezala. Sorpresek eta ezustekoek ibilbide bat egitera eramanen dute, non kondairak, istorioa eta pertsonaia beldurgarriak aurkituko dituen, geure artean... Izuarekin zer ikusirik ez! Sartu «Biderik» dibertigarrienean Zangozako Ondareaz gozatuz, inoiz ikusi ez duzun bezalaxe.

**Ibilbidea:** Karmengo komentuko klaustroa, Vallesantoro Jauregia, Amadores karrika, Santiago Eliza, Santa María la Real Eliza, Aragoi ibaia.

**Topalekua:** Karmengo komentuko klaustroa.

**Ordua:** 11:30etik 13:00era. **Bisitak doan**.

**Argibideak:** Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# «Batasuna peña» elkartearen 50. urteurrenaren ospakizuna

## LARUNBATEAN, ABUZTUAK 22

**09:30:** Dianak Zangozako Gaiteroen eta Metalen ensemblearen eskutik.

**12:00:** Kalejira Zangozako Udal Banda Elkartearen eskutik.

**12:45:** Dantzaldiak Rocamador Dantza Taldearekin Praun.

**15:00:** Herri bazkaria Buenaventura Iñiguez karrikan.

**17:30:** Erronda Eskartxa txarangarekin.

**20:00:** Dj Naken Selektor.

**22:00:** «Zerbitzuz Kanpo» taldearen kontzertua.

**Antolatzailea:** Batasuna Peña.

# Zangozako Merkatari eta Ostalarien Elkartea

### MERKATARITZAREN FESTA

## LARUNBATEAN, ABUZTUAK 29

Zangozako Merkatari eta Ostalarien Elkartearean kanpaina.

Haur eta helduendako jarduerak egun osoan zehar.

**Antolatzailea:** Zangozako Merkatari eta Ostalarien Elkartea.

**Laguntzailea:** Zangozako Udala.